

Cumplir años y ediciones



Carlos Gil
Analista cultural

Casi siempre es difícil contar los años y las ediciones de los acontecimientos culturales que han sufrido en su historial parones, vacíos, discontinuidad. La feria de Donostia, hoy dFeria, celebra sus veinticinco años. O sus veinticinco ediciones. Una historia. Algunos tenemos la suerte de recordar la primera, las primeras, las segundas, los parones, los reinicios, la huelga, el auge, caída y resurgimiento. Hoy sigue cumpliendo sus funciones de mercado, de plataforma internacional, de encuentro y tiene, a su vez, un innegable aire de festival volcado en parte hacia la ciudadanía.

Estos eventos necesitan de continuidad, de estrategias de renovación, de saber qué objetivos debe cumplir, a quién debe servir, su relación con la ciudad donde se celebran, su implicación con los gremios profesionales, su proyección y todo ello dentro de un equilibrio presupuestado que ayude a que todo se cumpla dentro de la normalidad más cercana a lo ideal.

Yo diría que Donostia es la cita para conocer las novedades de la danza contemporánea vasca. Es un lugar para la proyección del teatro propio de mejor nivel en circuitos internacionales. La posibilidad para los programadores de localidades con menos presupuesto para conocer las propuestas mejores y más asequibles del teatro estatal. Y es, además, una fiesta ciudadana. Y un lugar para soñar realidades. Que cumpla muchos más.

Errebeldeen album ilustratua

Emakume izateagatik beraiegandik espero zena alboratu eta nahi zutena egin zuten 50 emakumeren erretratuak biltzen ditu «Erre-

belde 50 bider» liburuak. Erretratuak, hitzaren bi adieratan: bai irudien bidez, eta bai testuen bidez, beraien bizitzak orri batean laburbilduz.

Nagore BELASTEGI | DONOSTIA

Euskal Herriko emakume adierazgarrien aukeraketa bat bildu dute «Errebelde 50 bider» (Erein) liburu ilustratuan, historiari ekarpenen bat egin dioten figura horiek gorapatzeko eta ezagutarazteko asmoz.

Bigarren Hezkuntzako irakasleak dira Maria Orcasitas-Vicandi eta Andrea Perales Fernandez de Gamboa, eta euren jardunean konturatu ziren hutsune handi bat zegoela emakumeak irudikatzerako garaian. Alegia, historia liburuan oso emakumezko izen gutxi agertzen zirela. Horri konponbidea emateko intentzioarekin ikerketa arin bat hasi zuten eta 80 emakume interesgarriren biografiek egin zuten topo. Sakonki aztertuz gero, askoz gehiago aurkituko zituztela aitortu zuten, baina orduan aukeraketa are zailagoa izango zen.

Azkenean 50 istorio hautatu zituzten, arlo desberdinetan emakumeek emandako pauso garrantzitsuak islatzeko. Batzuk norbanako gisa aritu dira eta oso ezagunak dira, eta beste batzuek, aldiz, kolektiboan egin dute lan eta inoiz ez zaie euren indarra aitortu.

Bide honetan, ezagutzen ez zituzten emakumeekin ere egin dute topo. Horregatik, hasiera batean nerabe eta gaztetxoekin zuzendutako liburua izan behar zena edozein adin tarterentzat interesgarria izan daitekeen produktu bilakatu da.

Idazleek lan handia egin dute biografia horiek, labor-labor kontatu nahi zituztenak, orri bakar batean txertatzen. Testu horiek amu moduko bat besterik ez dira, eskuratzen dituzten neska-mutilen jakin-mina pizteko sortuak, gerora egutuko dituzten pertsonaia horien ibilbidean sakondu dezaten.

Bertsolaria, kortsarioa...

Pertsonaia bakoitzaren testuaren alboan Angela Garcia Mardones ilustratzailearen erretratuak daude, deskribapenei ekarpen handia egiten diotenak. Izan ere, artistak bere ohiko estiloa alde batera utzi du eta pertsonaia bakoitzaren araberako egokitu du bere marrazteko era, emakume bakoitzaren izaera islatu nahian.

«Lan mardula izan da hain estilo desberdinak lantzea, baina garai desberdinetako eta gremio desberdinetako emakumeak izanik, desberdin islatu nahi ni-

EZ DIRA INOIZ HILKO

Jaiotza lekua eta data jarri dituzte pertsonaia kokatzeko, baina ez dute heriotza datarik jarri; batzuetan, emakume hauek garaikideak direlako, eta beste batzuetan, aspaldikoak izan arren, euren ondareak betiko irungo duelako.

tuen. Lan motela izan da, batzuetan ez nengoelako inspiratuta eta beste batzuetan pertsonaiari buruzko informazio gutxi nuelako, baina finean oso harro nago lortutako emaitzaz», aipatu zuten.

Esan bezala, oso desberdinak diren emakumeak daude liburuan. Adibidez, Maialen Lujanbio bertsolariarentzat, ilustratzaileak lerro soilak hautatu ditu. «Ilustrazioerik sinpleena da eta gehien gustatzen zaidana. Maialen bertsoa pentsatzen ari denean, une hori islatu nahi izan dut», azaldu zuten.

Era berean, liburuaren amaieran kolektiboak daude: arraunlariak, portuko zigargiak, erraketistak, etxekoandreak eta nekazariak. Azken biak irudikatzen lore eta landareekin collageak egin ditu.

Idazleentzat bildu dituzten istorio den-denak dira interesgarriak baina bakarren bat aipatzearen, Juana Larando nabarmendu zuten. «Beti izan ditugu piratak gure imaginarioan eta horrelako kortsario bat berreskuratzea garrantzitsua zen», adierazi zuten Orcasitas-Vicandik. Kasu horretan, beste batzuetan bezala, datu historikoak fikzioarekin nahastu dituzte, aurkitu duten informazioan hala adierazten zelako.

Juana de la Cruz idazlea faltan bota zuten aurkezpena joan zen entzule batek. Mexikon jaioa, aita gipuzkoarra zuten eta euskaraz idatzi zuen. «Badago! Juana de la Cruz' bere ezizena zen, Juana Ines de Asbaje zen jaiotzez», argitu zuten Perales Fernandez de Gamboak.

Katalina Erausoren faltaz galdetuta, honek erantzun zuen: «oso ezaguna da Euskal Herrian baina Ameriketara indigena asko hil zituen eta arrazoi ideologikoengatik baztertu genuen. Ekarpene positiboak egin dutenak bakarrik gehitu ditugu».

Anari, Dolores Ibarruri, Elbira Zipitria, Inesa Gaxen, Josune Berziartu, Kasilda Hernaez Vargas, Lucia Lacarra, Maider Unda, Mariasun Landa, Nicolasa Pradera, Sorkun... Emakume hauek guztiak liburu batean bilduta ikustean haien artean dagoen lotura argia da: errebeldeak dira, ezarritako mugen kontra joan direlako.



Liburua euskaraz («Errebelde 50 bider») eta gaztelaniaz («50 veces rebelde») argitaratu du Ereinek. Jon URBE | FOKU